

# Testu-menpekotasuna Axularren obran

PATXI SALABERRI MUÑOA \*

*[...] las relaciones directas de dependencia entre textos vascos, cuando no son abiertamente reconocidas [...], están muy mal estudiadas: algo más nos hemos ocupado de dependencias externas, de influencias de autores que escribieron en otra lengua, aunque tampoco esto se haya tratado ni mucho menos, de manera suficiente". Mitxelena*

Gure artean ezagun bezain ospetsu bihurtu da Granadak Axularren *Gero liburuan* (1643) izan bide zuen eraginaren oihartzuna, inoiz azken honena harenaren itzulpentzat hartua ere izan delarik (ik. García del Moral eta Román de La Rosa 1993, 269). Alabaina, autore biek erakusten dituzten kiderasunak aztertuta, eta Granadakoaren eragina onartuta ere, zinez esan daitake elkarren arteko distantziak handi izaten jarraitzen duela.

Oro har, esku artean dugun obraren inguruau sortu den menpekotasun arazorik handiena, hasierako hitzaurre gisako gutunek sortutakoetik at, liburuaren mamiari egokitu zaio nagusiki, sarri askotan haren originaltasunera eta Axularrenak izan zitzakeen iturri-eraginetara mugatu delarik obrari buruzko eztabaidea.

Zaharra bezain nahasia da arazoaren genesi kontua gure artean<sup>1</sup>. Guztiarekin ere, lehengo hartan segitzen du sakoneko arazoak, iturrienak alegia,

\* Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV.

<sup>1</sup> "El problema, que había interesado ya a Humboldt, fue suscitado sobre todo por Julio de Urquijo, siguiendo una indicación de Schuchardt, ingeniosa y un tanto irresponsable como muchos de los atisbos etimológicos de éste: baste con remitir a Fr. Luis Villasante, *Historia de la literatura vasca*, Bilbao 1961, p. 72 ss. Ahora bien creo que don Julio tenía ideas no del todo justas en dos puntos que tenían inevitablemente que desviar su juicio en este género de materias. En primer lugar, como dueño de una magnífica biblioteca y nudo de una amplia red de relaciones que le daban fácil acceso a otros fondos bibliográficos, no podía tener mayor conocimiento de los recursos de fortuna, de los trucos si se quiere, que han

maizkara serioski burutzeke eta zenbaitetan funtsik gabeko hipotesiak zabal-tzeko aitzakia bihurtuz.

Ildo horretatik, urteetan barrena iritzi-lerro desberdinak hedatu dira gure artean Axularren iturri eta irakurketei buruz, sarritan iturriak eta egilearen ustezko irakurketak, kontzeptu desberdinak izan arren, urdazubiarrak egiten dituen aipamenen arazoarekin nahasten direlarik. Areagotu egin ohi da ana-basa Axularren aipamenen jatorri zuzenaz eta errezeptio bideez galdeztean (aipatu guztia benetan obretan irakurria eta egileak berak hautatua ote? guztiak irakurri beharrean, ez ote zuen inoiz aipu-bildumatarra jo?, etab.). Muturreko aukerarik ere egon liteke erantzunen artean, zeharka baino (obraren originaltasuna ukatzean hain zuzen) planteatu izan ez dena: testua eta aipamen guztiak beste autore aitortugabeko batzuen liburuetatik atera zituen, eta ez erreferentzieta ematen diren horietatik zuzenean.

Guztiarekin, Axularrek iturriekiko erakutsi jokabidea aske samarra izan balitz ere<sup>2</sup>, ez dirudi inor harrituko lukeenik autoreren baten obrak erreferentzia nagusi eta orokor gisa erabili izanak eta, tartean, testua osatu behar zen guztieta (edo horrela iruditzen zitzasionetan) osagarri gisa bestelakoak izateak.

Nolanahi ere den, hori guztia baino zabalagoa den testu-menpekotasunaren arazoaren esparruan sartu ahal izateko metodologikoki maila desberdinak bereiztu behar dira: iturri zuzenak, zeharkakoak, *communis opinio* dela-koari zor zaizkionak<sup>3</sup>, etab<sup>4</sup>.

Ildo horretatik, artikulu honetan beste autorerengandik karriatutako testuak edo maileguak aztertzen saiatuko gara soil-soilik, Axularrek aipamen huts gisa hartu ez zituenak, hots, zenbaitetan hitzez-hitz jasoak izan arren, testuan barrena urturik eta izkutaturik utzi zituenak hain zuzen.

#### L. A. AXULAR SARAKO ERRETORAK BILDUA<sup>5</sup>

Erromantizismoaren izpirituarrekin batera barreiaturiko ideia da originaltasunaren balioarena literaturari dagokionez. Eta obraren originaltasunarekin batera istoriko da autorearen prestigioaren ezagutza eta aitorpena. Honek, jakina, gaur egun ezagutzen dugun autorearekiko begirunea hedatuko zuen.

permitido a quienes no nos contábamos entre los *happy few*, desde los tiempos de Axular hasta los nuestros, hacer pequeños alardes de erudición a pesar de no disponer de materiales de primera mano. Y, en segundo, su concepto de originalidad me parece, por decirlo francamente, un tanto discutible, sobre todo cuando se trata de textos en lengua vasca, y bien sabe Dios que nunca me he hecho ilusiones desmedidas sobre la originalidad de esta literatura” (Mitxelena 1971, 166)

<sup>2</sup> Ez da besterik Lafitte dioena: “Axular s’inspire d’ailleurs très librement de ses sources” (Lafitte 1943, 39).

<sup>3</sup> “Parece fuera de toda duda, sin embargo, que las analogías en la descripción y justificación de las penas del infierno provienen de la *communis opinio* reflejada en cualquier texto católico de aquella época e incluso de otras muy posteriores. Quedamos bastantes todavía que hemos sido testigos de su pervivencia y de su reciente cambio” (Mitxelena 1971, 152).

<sup>4</sup> “Resterait l’hypothèse que les deux écrivains auraient puisé à une source commune” (Lacombe 1943, 21; gurea da letrakera etzana).

Ez zen horrela gertatzen aurreko mendeetan, are gutxiago edertasun asmoen aurretik arlo pragmatiko-morala landu nahi bazeen. Axularren obran bertan ikusten denez, garaikideak dira gutxien aipatzen diren autoreak, nahiz eta nabaria izan haiekiko zorra. Villasantek aspaldisko ohartarazi zuen honetaz:

“Kidekoak edo mende hartakoak aipatzea ez zela ohitura esan dugu; hoiek irakurri eta baliatu, bai, egiten zen gogotik. Eta Axularrek ere hala egingo zuela uste izateko da. Gai hauetan nehor ere ez da xoil orijinal. Gauza guztiak bere baitatik sortzen eta ateratzen dituena ez da jaio” (Villasante 1972, 135).

Jokamolde honek, zer esanik ez, latzago eta ilunago uzten du testu-originaltasunaren arazoaren konponbidea, batez ere testua susmagarria denean. Ohi denez, beraz, ez dago horrelakoetan zitezkeen iturrien berri izateko erreferentzia zuzenik.

Metodologikoki geratzen den bide bakarra testuak erkatzea da, arlo be-reko testuak banan-banan konparatzea. Baina oihan horretan abenturatze hutsak ez du derrigorrez fruiturik agintzen; are gehiago, zenbaitetan exhaustiboki sakontze eta arakatze-nahiak, horrelakoetan aritzeko asmotan dabilena geldiaraztea baino ez du lortzen.

Edozein modutan, gurea bezalako lan batean iturri guztiak finkatzea bezain (-> baino) garrantzitsu(ago)a da joera orokorrak antzematea. Hori horrela, eta lan exhaustiboa burutu bitartean, iturriak somatzeko bide eman-korragoa dirudi metodo hipotetiko-deduktiboak eskain dezakeenak (plante-amendu orokorretatik obra konkretuetara doana), induktiboak baino (*loci* eta *silva* guztiak banan-banan aztertzeari ekingo liokeena, alegia).

Hortaz, ez gara gu aszetika liburuen konparazio luze bezain eskergaizto-ko horretatik barrena abiatuko, ez baita gure asmoa testuaren “originala” aurkitzea. Izan ere, Axularrek aitortzen zuenaren ildotik, ez dugu uste aita edo ama bakarra denik.

Axularrentzat ezagunak ziren obretan kidetasunak eta maileguak bila-tzen saiatu bainoago, beraz, kidetasun horiek erakusten dituzten ezaugarriei buruz ihardungo dugu, guretzat aski bailitzateke gutxienez gaur egun ditu-gun aztarnak, hark iturritzat izandako irakurketenak hain zuzen, finkatuago geratuko balira eta haren egiteko erretorikoaren berri izateko argitasunik es-kainiko baligute.

## 2. TESTU KIDETASUNAK ETA BESTE

Axularrek *loci* gisa hartutako pasarteak eta obrak baliatzeko eta itxural-datzeko zerabilen maisutza bera erakutsi zuen aszetikako testuetan nola eus-karazkoetan. Batzueta ideiak eta irudiak jaso zituen jatorrizko testuetatik, bestetan testuinguruak eta mezuak, maiztxo hitzak edota esamoldeak baka-rrik, ... Sarri asko, maileguok banan-banan hartuz gero, zalantzazkoak ez ote diren ere pentsa daiteke<sup>5</sup>, oso ondo menderatzen baitzuen Axularrek pasarte-

<sup>5</sup> Badira esamoldeei eta dagozkien antzak, baino eragin zuzen bati ezin egotz lekizkio-keenak ziurrenik. Adibide gisa, Granadaren erretorika liburuan “toda la vida juegan este juego” (*Retórica* 609a) agertzeak ez du ezinbestean paralelismorik adierazi behar Axularren

ak aukeratzeko, “txikitze” eta erabiltzeko teknika erretorikoa. Alabaina, kidetasun hutsak diruditen guztiak elkarrekin jarri gero, ezin garbikiago mintzatzen zazikigu testuen jatorriaz.

Testuak erkatzerakoan ikusiko den bezala, badirudi bi motako iturriak erabili zituela segun eta zein atal burutu behar zuen liburuan. Oro har, eta salbuespenak ukatu gabe, idazle euskaldunen obrek hasierako testuetan dute islada, bai azalean nola “Gomendiozko karta”-n eta “Irakurtzaileari” eskainitakoan. Liburuaren osaketarako, aldiz, beste batzuk izango dira Axularrek erabiliko dituen erreferentziak, aszetika klasikoaren ildokoak eta, adierazia dugun legez, nagusiki gaztelerazkoe tradizioaren esparrukoak hain zuzen.

## 2.1. Euskal eremuko “iturriak”

Euskaraz idatzi zutenen artean Axularrek erabili bide zituenak aipatzen hasiz gero, Materre litzateke zinez lehenengoetariko bat, haren obra eskuztatze-ko aukera onak izan baitzituen urdazubiarrak, Axularrek berak 1616an eman-dako “aprobationea”-k erakusten duen bezala (euskaraz ere Axularrekin edo ikasi bide zuen). Jakina denez, Materreren *Dotrina Christiana* liburuaren lehen edizioa 1617koa da eta bigarrena, gaur egun ezagutzen duguna alegia, 1623koa.

Autore bien testuen arteko kidetasunak zirela eta, aspaldian eman zuen Villasantek Materre eta Axularren hitzaurre gisako gutunen arteko kidetasunen berri (ik. Villasante 1952, 264). Hitzaurrekoez gain, badakar Urgellek (1991, 913-914) beste pasarte bat ere idazle bien obretatik jasoa eta erkatua. Zehatzago ikusiko ditugu, dena den.

Bestalde, Leizarragaren obrak 1571koak zirela kontutan harturik, Axularrek, Materrek bezalatsu, ongi ezagutu zitzakeen harenak, eta testuen arteko konparazioa egitean azalduko dugunez, badirudi, aurkitu uste dugun kidetasun zenbaiten arabera, zuzen-zuzenetik ezagutu zituela gainera (batez ere *Testamentu Berria*-ren hitzaurrea<sup>6</sup>).

“eta han bere iokoa iokatu zutela” (*Gero*, 351) perpausarekin. Gauza bera esan beharko genuke autore bien obran sarritan agertzen diren aipamen edota exenplu arruntei dagokienez. Bibliatik hartutako adibideak, besteak beste, nork bereak hartuak izan daitezke. Ildo horretatik, ez dugu uste Villasantek kidetasunen artean Granadaren batekin ikusten duena inolaz ere berak suposatzen duen “kidetasun”-tzat har daitekeenik. Granadakoaren *Guía*-n honela agertzen da erreferentzia biblico ezagun hau: “Seiscientos mil hombres sacó Dios de Egipto para llevar a la tierra de promisión, sin mujeres y niños que no se cuentan” (*Guía*, 103b). Villasantek Axularren “iragaiten baitziren seietai ehun milla presunatan” delakoaren paralelo gisa eskaintzen du (1972, 150-151), testuinguruari eta aipamenaren arruntasunari begiratu gabe.

<sup>6</sup> Nekez asma genezake noraino ezagutzen zuen Axularrek Leizarragaren lana. Edonola ere, adierazgarria izan daiteke eliza katolikoak lehenengo latinez argitaratutakoaren (Venezian, 1597an) ildoko gaztelerazkoe *Index* izenekoak dakarrena gogoratzea. Bertan oso garbi debekatzen zaie guztiei Leizarragarena bezalako Testamento Berriak izatea edota irakurtzea: “REGLA III: Las versiones de la Biblia, assí del Viejo como del Nuevo Testamento, hechas por los dichos Autores (*Index*-ean kondenatuak, kalbinistak edota herejeak), generalmente se prohíben; mas con licencia nuestra *in scriptis* i no de otra manera, podran hombres doctos i pios tener i leer las Versiones del Viejo Testamento hechas por los dichos Autores, con que usen dellas como de elucidacion de la Edicion Vulgata, para entender la sagrada Escritura, i no como Texto sagrado, ni auténtico. Pero no daremos la dicha licencia para tener, o leer las Versiones del Nuevo Testamento hecho por los dichos Autores, por el poco provecho, i mucho peligro, que de su lección suele resultar a los lectores” (*Index librorum ...*, 1612, 2 or.).

Esaten dugunaren ebidentziarik nabarmenena atariko eskaintza-hitzau-  
reetan genuke. Garaiko literatura aszetiko gehienean bezalatsu, *Gero-n* ere  
“Gomendiozco carta” eta “Iracurtçailleari” izeneko atalek ematen diote ha-  
siera liburuari. Ohi bezala, sermoietan exordio arruntak betetzen zuen fun-  
tzioa betetzen dute horiek honako honetan: obraren eskaintza, garatuko den  
mezuaren eta liburuaren aurkezpena,... hori guzia ohiko elementu garran-  
tzitsuenekin lagunduta.

Zitekeen testu originaltasunaz den bezainbatean, bestalde, arazoa gutun  
horien *inventio*-rako iturri edo eredu desberdinak erabili ote zituen izango  
litzateke.

Ez dugu, egia esan, froga gardenagorik (ez lekukotasun zuzenik, ez bes-  
terik), testuen arteko erkaketak erakusten diguna baino, ez behintzat gauzak  
behin betiko erabat finkatuta uzteko modukorik. Inolaz ere, zitezkeen ere-  
duak horiexek edo zirela pentsatzeko bidea eskaintzen du alderaketak.

Horretan oinarrituta, beraz, liburuaren lehen gutunaren *inventio* -an  
Materre eta, batez ere, ideologikoki urrunegi eta kontrkarrean zuen Leiza-  
rraga zeudela uste dugu, zein bere tokian, eta bakoitzak bere funtzioa es-  
kaintzen. Bigarrenean, aldiz, “Irakurtzaileari” eskainitakoan alegia, Materre-  
ren presentzia beste inorena baino askoz ere nabarmenagoa da.

Oro har harturik, eta *Gero* liburuaren sarreran erabili banaketari gagoz-  
kiolarik, badirudi Axularrek nahiago izan zuela aipatu autore bien hitzaurre  
testuen arteko bidea hautatzea. Ondorioz, haren aurretik euskaraz idatzi zu-  
ten prosalari biak erreferentzia gisa hartu eta gero, honela geratzen zen auke-  
ratutako bidea: Leizarragak eskaintza bakarrean adierazten duen problemati-  
ka guzia gutxietsiz, baina Materrerena bezalako sarrera hirukoitzta (eskaintza  
+ “Euscaldunei” + “Iracurcailleari”) askoetsirik, Axularren obraren sarrerako  
hitzak bi multzotan banatuta plazaratu ziren, “eskaintza” dena liburuaren  
irakurtzaile (euskaldun)ari zor dion informazioik garbiki bereiztuz, Haran-  
bururen antzera *Debocino ecuarrra, mirailla eta oracioneteguia* liburuan (Bor-  
dele, 1635).

Gainetik bada ere, merezi du banaketa-modu horretaz aparte, zeintzu  
izan diren Axularren ikusmiran egon zitezkeen erreferentziak aztertzea.

### 2.1.1. Azal-atarikoak

Oro har esan genezake Materrereren erreferentzia dela hasierako testu  
hauetan gailentzen dena. Imaginatu baino elementu gehiago eskaintzen diz-  
kio Materrek Axularri. Idazleon testuen paralelismoa, printzipioz, honako  
puntu hauetan antzematen da:

1) Biak Bordelen, Millanges-en familiarenan eta formalki azaleko egi-  
tura berdintsquarekin, hala letra moten banaketari dagokionez nola testuaren  
distribuzioari. Edonola ere, egia da honako hau beti egotz lekiokeela inpri-  
matzailearen ardurari.

2) Hurrenez hurren, hiru eta bi partetan daude banatuak obra biak.  
Parte bakoitzean azalduko denaren berri ematean, hizkuntz egitura beretsua  
darabilte<sup>7</sup>:

<sup>7</sup> Honako egitura honen gainean:

“Lehenbicicoan”

“Bigarrenean” + (indikatibozko orainaldi ezburutua) + X edo Y

Materre:

“Lehenbicicoan ibenucen da Guiristinoac iaquin behar duen...”

“Bigarrenean ( ibenucen da ) Doctrina haen declaraciona...”

Axular:

“Lehenbicicoan emaiten da, aditcera, cenbat calte eguiten duen...”

“Bigarrenean quidatcen da, eta aitcinatcen...”

Esan gabe doa Etxeberri Ziburukoaren *Manual*-arekin *Gero-k* duen kidetasun bat bi partetan banatua izatean datzala eta tituluaren ondoko azal-penetako “bi partetan berecia” hura Axularren gogokoa izango zela, nahiz eta gero handitua -anplifikatua- emango zuen: “bi partetan partitura eta berecia”.

Jakina, obra osatzeko materialeak “liburu debocinozoetarik” ateratzearena egina zuen ordurako Haranburuk ere: “Obra debocinozoetaric traçatura, egualec berac ere bere baitharic debotqui aberaxtua eta pontualqui eguna”<sup>8</sup>.

#### 2.1.2. “Gomendiozko karta”

Gutun honetan, formalki bederen, Materrerren erreferentzia da hasieran nabarmenzen den bat. Agian puntu batzuk kasualitateari baino gehiago in-primatzaileari edota garaiko jokabideei egotzi badakizkieke ere, ez diote kidetasun izateari uzten. Horrelako eskaintzetan tratatzen diren ohiko puntu komunez gain, eta gogoan harturik bata frantsesez idatzia dela eta bestea euskaraz, hona hemen nabarmenenak:

Pertsonaiaren aurkezpenean, esaterako, Axularrek Materrek egiten duen aurkezpenaren antza agertzen du. Bai Materrerenean eta bai Axularrenean eskaintza bakoitzean agertzen diren paralelismoak ez dira, baina, pertsonaiaren karguetara<sup>9</sup> eta ondozkatze berdintsura mugatzen [elizgizon ospetsu, (artza)ipizpiku, Frantziako erremusinari, Erregearen kontseilari, etab.]; liburu-ua eskaintzeko arrazoia ere, nork bereak, ildo berekoak dira bietan (nahiz eta adiskidetsuak diren Axularrenean eta erabat formalak Materrerenean).

Badirudi, beraz, Axularrek begien aurrean izan zuela Materrerren edizioa berea moldatzeko. Formalki agertzen diren elementu grafikoek ez dute horretan zalantzak uzten<sup>10</sup>. Halere, barneko egitura eta edukiari buruzko hausnarketa puntu zenbait ekarri nahi genituzke hona, garrantzitsuagoak baitira gure ikuspuntu erretorikotik begiratuta.

Egituraz den bezanbatean, hortaz, esan genezake Axularrek “Gomendiozko Carta” atalean darabilen egituraketa aurrean Leizarraga izanik bakanrik uler daitekeela, liburuaren “eskaintza” hutsa den partean (hau da, hiz-

<sup>8</sup> *Debocino escuerra...,* 1635 (azalean)

<sup>9</sup> Nabaria da hasierako “ENE IAUN” hori ere “MONSEIGNEUR” delakoaren moldaketa baino ez dela.

<sup>10</sup> Edizioaren azken ardura moldatzaile-inpimatzailearena bazen ere, gogoan hartu behar da autoreak berak aukeratu (kontratatua) ohi zituela formalki liburuak izan behar zituen ezaugariak. Ildo horretatik, begi bistean da letra motak eta tamainak ere berdintsuak direla Axularrenean eta Materrerenean: eskaintzaburua, hasieran letra larriak, gero minuskulak; “MONSEIGNEUR” larriak, “NEURE” ere bai; hasierako “M” eta “N” horiek handiak eta estilo berekoak; hurrengoa, eskaintza alegia, letrakera etzan berberarekin argitaratua dago, nahiz eta baten hizkuntza frantsesa izan eta bestearena euskara.

kuntzari eta liburuaren burutzapenerako izandako lanei dagozkien zatiak kendurik) gure kalbinistaren egitura bera erabiltzen baitu saratarrak, argudioak eta bitartekoak ere berdintsuak direlarik (jakina, askoz ere asianikoa-goa urdazubiarrarenak).

Liburu erlijiosoetan “Eskaintza” ataletako argumentazio-hariak, gorabehera txiki batzuk kenduta, oso antzekoak izan ohi ziren:

- 1) Liburua eskaintzen zaion pertsonaren izen-deiturak eta karguak
- 2) Haren laudorioak eta bertuteen aipamena (gizatasuna eta erlijiositatea).
- 3) Liburuaren eskaintza eta “errezibi ezazu” delakoaren eskaria.

Halere, harrigarria egin daiteke Leizarragaren presentzia, batez ere, diskurtso eta argudioen hariari dagokienez<sup>11</sup>.

Zalantzak gabe Leizarragarekiko presentzia edo, hobe, kidetasun hau obraren eskaintza-justifikazioaren eta laudorioen ataltxoan dugu nabarmenen, nahiz eta Leizarragaren hitzen kontzizioa Axularrenera pasatu ondoren, hizkuntz aberastasuna (erretorika) bihurtzen den. “Nabarmenena” diot baina ez harrigarria ziurrenik, orduko idazleek ez baitzuten euskaraz idazterakoan bestelako eredurik, hau da, eredu erretoriko teorikoak bai baina fruitu konkretuak, idatzizko patroiak ez.

Ohi bezala, formula erretoriko desberdinak erabiliz, bai Leizarragak eta bai Axularrek ere eskaintza-jasotzaileei leporatzen diente obren “eginkidetza” (eragina, batean, eta aittasuna, bestean)

Hori onartu ondoren, gizatasunari buruzko laudorioak hedatuko dira testuetan barrena: Leizarragaren kasuan bere buruarekiko ikusi eta “valiatu içan” (249 or.) zaion “humanitate”-az; Axularrenean -humanitatea areagotze-ko errekurso erretorikoaz baliatuz-, Euskal Herriko biztanlego guztiarengana zabaldu omen zen Etxauztarrarenaz (“Nor da euskal-herrian aldez edo moldez, çordun eta obligatu etçaitçunic?” [5 or.] eta “Çu içan çara, eta içanen çara, euscaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta cantabres fina, naturala eta eguiazcoa” [5-6 or.]).

Paralelismoa aragotu egiten da pertsonaien bertute erlijiosoak aipatzen hasten direnean. Testu biak elkarren ondoan jarriz gero, Ioannaren aurkako lehia ematen du Axularrek aurkezten duena, ezen baldin Albretarra “Iaincoaren templeco gauça gaizquituén dreçatzen” (Leizarraga, 250) aritu bazen, Etxauztarrak ez zitzaizkion atzean gelditu “legue Catolica saindua, iduriz flakatcera, cordocatcera eta erotcera cihoanean”, “eguiazco fedearen eta leguearen deffendatçaille, eta aicinatçaille buruçaguiac ere” izan baitziren (Gero, 6), hori bai, erregina batek izan zuen botere politikoaren ondorioz lortu zuena “Tursco Arzipizpicu” batek ezin irits zezakeenez, Axularrek, gauzak behar bezala eta arlo guztietan parekatu ahal izateko, familiako “Bizkondeak eta seme guztiac” (Gero, 6) ekartzen dizkio errealitye terrenalean, “ezpata bilucia es-cuan harturic” (Gero, 6-7), laguntzera. Eta Ioannari esker, Jainkoaren tenploa “bere leheneco edertassun Apostoluén demborán ohi çuena”(Leizarraga, 250) berreskuratu bazuen, “Bearno gucian Iaincoaren hitza paisiblequi eta edificatione handitan predicatzen [...] baieta disciplina ecclesiasticoa eguiaz-

<sup>11</sup> Luze joko luke Leizarragak eta Axularrek darabiltzaten hitz eta esamolde berdin (aldez baliatu, arrenkurak kontatu, arrenkuretatik ilki,...) eta paraleloen (Axularren Nafarroa Beherea vs Leizarragaren Bearno, Nafarroako erresuma, etab.) azterketa egiteak. Beraz, kidetasun orokorrezz mintzatuko gara hemen.

qui eta bide beçala observatzen” (Leizarraga, 250) delarik, Bertrand-en aita Jaunak “bere herria eta ingurunekoac ere, hetan sartcera cihohan eritasunetic beguiratu [bait]cituen” (*Gero*, 7).

Nolanahi ere, Ipizpikuak ere bete zuen botere terrenalekin bete zezakeena (Nafarroako hiru estatuak bildurik zeudelarik, Gortera joan zenean), nahiz eta benetan aitzinekoen “marra iragan” (*Gero*, 8) zuen “Echausco etchearen arropa gorriaz vestitceco bidetan içan” (Idem) zenean.

Atal honen bukatzerakoan, ezin harrigarriago bihurtzen da idazle bien arteko kidetasuna eta antza. Leizarragak honako hau dioenean:

“Baina cer? etzait niri eman çure laudorioén aipatzez hain aitzina avançatzea, hetango claretatea neure minçatzeco insufficientiaz ilhun ezteçadançat. Bainha hunetan guelditzen naicela-ere, sportçu dut ecen, ahal liratequeen...” (Leizarraga , 250).

Axularrek aurrekotik gehiegi urrunten ez den parafrasia darabil:

“Baiña certaco sartcen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ecin athera naitequeyen oihanean? Çure laudorioen aippamenean? Berac dira bere buruz asco gora mintço: berac dira bere baithan asco clar eta ozen. Utz ditçadan beraz nic hec, hutsic eztguidan. Eta iragaiten naicela aitcina, derradan hutsic eguin gabe...” (*Gero*, 9).

Ordurako, dena den, Axularrek hain ongi menderatzen duen amplifikazio erretorikoa hemen ere erabilia ikusiko da Etxauzen bertuteak laudatzera-koan:

“Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik, ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, eztela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez, huts egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak: eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memoria handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta prestutasunera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman bainteratzu” (*Gero*, 8-9).

Hurrengo atalean, liburu(ar)en eskaintzaren egokitasunaz mintzatzen direnean, alderdi ezberdinatik hartuko dute gaia idazle biek. Bata bere burua, obra eta dedikazioa zuritzen ahaleginduko da eta bestea, Axular, liburuaren aitapontekoa izan gogo duenaren horretarako egokitasunera mugatuko da.

Ez du bukaerak elementu berririk eskaintzen kidetasunen aurkezpen honetarako, autore bienak, usantzaren ildotik berriro ere, liburuak onartuak (“errezibituak”, nahi bada) izan daitezen eskatuz borobiltzen baitira. Halaz ere, hitz egitura batuetan Materrerena dirudi oihartzuna.

Axularrek sinatzeko moduak, gorago esan bezala, badu ohiko formulakin kidetasunik, Leizarragak eskaintzaburuan jarritako formulak legez. Ga-

raiko ohiturak medio, bukaerako agurrak ere berdinak dira bai forman eta bai esanahian autore gehienetan: “Vostre tres-humble & tres-obeyssant serviteur. F.E. MATERRE.” eta “Çure cerbitçari ttipiena, eta obligatuena P. DE AXULAR.”. Jakina denez, Materrek hitzaurrean frantsesez agurtzeko daramilen formula ere Leizarragarena bera da<sup>12</sup>:

“son tres humble & tres obeissant seruiteur” (Leizarraga, 243 or.).  
“vostre tres-humble & tres-obeyssant seruiteur” (Materre, 8 or.).

Horregatik, Leizarragak frantseseko agurra “Bere cerbitzari gucizco chiac eta gucizco obedientac, Ioannes...” (249 or.) formulan<sup>13</sup> egokitu zuen bezala, Axularrek ere ildo bereko egokitzapena burutu zuen bere “Çure cerbitçari ttipiena, eta obligatuena P. DE AXULAR.” (11 or.) delakoarekin.

### 2.1.3. “Irakurtzaileari”

Eskaintzaren ondoren, “Irakurtzaileari” izeneko atala ezarri zuen Axularrek, besteak beste Leizarragaren “Heuscalduney” eta Materrenen “Euscaldu-nei” atalak gogorazten dituena.

Materren liburuaz den bezainbatean, dagoeneko ez dugu gehiegi deskubritzen honako paralelismo edo kidetasun estu hauek hona ekartzean (ik. Villasante 1952: 264; Urgell 1991: 913):

- a) “badaquit Euskal-herrian añhitz moldez minçatcen direla” (Materre, *Dotrina*, XIII-XIV or.).
- a’ “Badaquit halaber ecin heda naitequeyela [...] Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian” (*Gero*, 17).
- b) “eta nori bere herrico Euscara çäicala hoberenic eta ederrenic: Eta handic gogoa emaitan deraut ene esquiribatceco molde haur etçayela guztiei ongui idurituko (...) ez naizela gaitz erraiteco, eta ez arbuyatceco” (Materre, *Dotrina*, XIV-XV or.).
- b’ “nori berea iduritzen baitçaica hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ez paita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran” (*Gero*, 18).
- d) “Eta Saraco Euscara hunetcaz content eztenac ezquiriba beça bertce Euscara hobeago batez eta hobequago, ez naiz ni hargatic bekaiztuco, eta ez imbidios içanen” (Materre, *Dotrina*, XV-XVI or.).
- d’ “Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian usatzen eta seguitzen den beçala. Ceren ez naiz ni hargatic beccaiztuco, eta ez mutturturic gaitzez iarrico” (*Gero*, 19).
- e) “Guztiac dohaci borondate on batez eguinac: eguiçu begiartea, eta errecebi itçağu nic ceurerc [sic] ba-lira errecibi nitçan nahi cenduqueyen beçala” (Materre, *Dotrina*, XXVII-XXVIII or.).

<sup>12</sup> Garai hartako azturen barneko jokabidea baino ez bide da hau. Kasu franko aipa genitzake horretaz ohartzeko. Granadaren obren frantseseko itzulpenetan, esaterako: “Tres-humble, & tres-obeyssant serviteur” (1603), “Vostre tres-humble, & obeissant serviteur” (1604), etab.

<sup>13</sup> Honela zioen Etxeparek ere: “haren cerbitzari chipiac”.

e')“Har eçaçu, liburutto hunen fruitua, barreneco mamia [...] Baiña intencione on batequin, ceurea, ceurc eguna baitcendu beçala”(*Gero*, 20).

Jakina, badira Materrerekin antz eta paralelismo gehiago ere. Eta, ez aipatuagatik ere, honekin ez ditugu ahaztu nahi Axularrek Materrereren obrari buruz “Irakurtzaileari” atalean eta gero liburuaren orrialdeetan barrena, erreferentzia [orto]grafikoak direla eta, egiten dituen erreferentzia testualak.

Bestalde, ez dirudi Leizarraga eta hark suposatzen zuen guztia ere urru-negi izan zuenik Axularrek sarrerako testu hau idatzi zuenean. Eta ez gara, berriro diogu, testuingurutik at leudekeen hitz eta esamolde berdinaren bila ari<sup>14</sup>, ingurumari berdintsuetan dauden testuen arteko parelismoak finkatu nahian baizik.

Ildo horretatik, Axularrek honako hau esaten duenean, “Ez eta, eztitut bethiere, escritura saindua eta doctoren erranac ere, hitzez hitz euscarara bihurtcen” (Axular 1643, 19), oso ondo daki Jainkoaren hitzari egin zekiz-kiokeen traizioak (*tradutore traditore* horren kontzientea) hugonautek nola konpondu zitzuten. Horrexegatik, hain zuzen, ematen du Leizarragaren hitz hauek zituela gogoan

“Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala egun ahal dudan fidelquien egun ukana dudala” (Leizarraga, *Testamentu...*, 253).

Inpresio berdintsua gertatzen da lerro hauen erredakzioaren aurrean:

“...hala-ere consideratzen nuanean, nola gure demorán-ere anhitz personage iaquinsuric Testamentu berriaren translationean emplegatu içan den, hambat Latinez, Francesez, nola anhitz berce len-goage abratsez eta praticatuz [...] nacussanean hambatez ene entre-presa handiago, cembatez nic scribatu dudan len-goage motá baita, sterilenetaric eta diversenetaric: eta oraino, translationetan behin-çat, usatu gabea. Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarela hain bassa, non gure len-goagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure Iainco Iauna[...].” (Leizarraga, *Tes-tamentu...*, 252).

Ez ote zuen Axularrek Leizarragaren testua aurrean zuela berea prestatu? Ondoko pasartean horren oihartzuna antzematen dela esango genuke, eta ez bakarrik hitz sorta berdinaren orden berdinagatik:

“Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen arte-an ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.

<sup>14</sup> Axularren aldaketa literarioetarako erraztasuna ikusirik, zailago litzateke agian Leizarragaren “bihotz eman”, “sporcu hartu”, etab., zein bere testuinguruan, saratarraren “Iracurtçailleari”-n ere bilatzea.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franceses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldu-nek berèk dute falta eta ez euskarak” (*Gero*, 19).

Jakina, gehiago ere luza genezake ustezko kidetasun horien zerrenda, baina nahikoa izan daiteke honako hau: Leizarragaren aipatu testua bitan banatuz gero, banaketa Erreginari egindako dedikazio atalaren bukaeran koka liteke nonbait<sup>15</sup>, hots, egilea burua zuritzen eta *Testamentu Berria* itzultzera “incitatu ukana” dutenetariko batzuk aipatzen hastean. Hain zuen ere, puntu horiekin ematen zaio hasiera Axularren “Irakurtzailleari”.

Antz gehiegia agian inpresio hutsa izateko.

## 2.2. Oharkizun zenbait Gero-n barrena aurkitu iturri-kidetasunez

Axularren obran zehar identifikatutako testu-kidetasunak eta bestelako antzak banan-banan eman badaitezke ere<sup>16</sup>, oro har ondoko puntu hauetara laburbil genitzake egin beharreko oharkizun nagusiak:

1.- Baldin hipotesi frogatutzat hartzen bada ingurune hauetako mistiko eta azseta garaikideen idazlanetako iturri orokorrak “(además de la Escritura) en los escritos místicos de los Padres y de los autores medievales: San Agustín, el seudo-Dionisio, los Victorianos, San Buenaventura, Santo Tomás, Gerson ...” (Cilveti 1974, 133) aurkitzen direla, zinez pentsa liteke antzeko zerbait esan beharko litzatekeela esku artean dugun liburu aszetikoari buruz ere, hots, iturriak bide horietatik eta iturri horietaz baliatu direnen obretatik barna bilatu behar direla. Besteak beste, eta modu generikoan bada ere, urdazubiarrak berak liburuaren azalean bertan aitortzen duelako, eta, jakina, horren ondorioz egiten dituen funtsezko aipamen guztiak ere esparru horretakoak direlako.

Bestalde, balirudike testuen arteko alderaketak erakusten duen bezala, gazteleraezko literatura aszetikoaren eremukoak direla Axularrek erabili bide zituen iturriok. Gogoratu, dena den, esparru honetako literatura aszetikoa ugaria, erredundantea eta, askotan, galdu-ahaztua izango dela. Sáinz Rodríguez-ek garai honetako liburuez hitzegiten duela, honela dio: “En el inmenso bosque de nuestras tres mil obras de literatura místico-ascética es mucho lo que se repite y carece de interés histórico” (1928, 61). Hortik, beraz, ondorioak, eta ez bakarrik metodologikoak.

Guztiarekin ere, Urkixori zor zaio esparru horretan gaur arte ia eragile bakartzat hartu izan den autorearen frogua, Luis de Granadaren eraginarena hain zuen<sup>17</sup>. Menpekotasun hau harrigarriegia suertatu ez bazen ere, Urkixok ez zuen frogatu “que el Guero, en cuanto obra total, depende de la Guía” (Mitxelena, *idem*).

<sup>15</sup> Ideiak oso ondo graduatuta eta uztartuta dituen testua da Leizarragarena eta ezin hobeto gainjartzen ditu erreginaren laudorioen eta dedikazio beharraren pasartea, bere buruaren defentsarena eta lanerako bultzataile izan dituenen aipamenena.

<sup>16</sup> Iku Salaberri 1997, eranskinak.

<sup>17</sup> Alabaina, Mitxelenak nabarmendu legez, atal batzuen jatorriari dagokion eragina bakarrik demostratu zuen: “Urquijo demostró, y este es un mérito indiscutible, que en unos pocos pasajes el texto de Axular depende directamente de la *Guía de pecadores* de Fray Luis de Granada” (Mitxelena 1971, 166).

Nolanahi ere den, badirudi Axularrek liburu desberdinak erabili zituela berea osatzeko eta, hori horrela izanik, nekez aurki daiteke liburu bakar bat harenaren iturri gisa. Ikertzaileek bat egin ohi dute Urkijoren hitzkin: “[...] jamás pensé que la obra de Axular fuese una mera traducción de un libro francés ó castellano” (Urquijo 1912, 7).

Horrezaz gain, iturrien arazo irristakor honetan ezin ikusmiratik kendu aszetikako liburu askoren artean dagoen “filiazio-lotura”. Beste hitz batzuez esateko, horrelako obra anitz aurrekoen kalko modura burutu ohi ziren, betiere egile berriek tartekatutako berrikuntzakin. Ezin adibide hurbilagorik aurkitu Granadaren obrek haien artean duten jaiotze-harremanenak baino. Ildo horretatik, bukaezinak izan daitezke liburu arteko antzak, berdintasunak eta kidetasunak, Axularrenak aurrekoekikoak bezainbat seguru asko.

Are gehiago, iturrien arazoa zailagotzeko, esan behar da garaiko literatura aszetikoak aski sistematizaturik utzi zuela hainbat arlo, hala nola bekatu kapitalen aurkako erremedio nagusien atala, infernuko penen kontsiderazioarena, etab. Horren adierazgarri, neurri handi batean, Granadaren liburuak berak dira berriro ere, bestelako autore zenbaitenak (Alvarado, Cano eta beste) ahaztu gabe.

2.- Aurkitu kidetasunak aztertuta, ez dago zalantzariak Axularrek esku artean obra desberdinak izan zituela berea moldatzeko, baten bat, ziurrenik, aipamenetan aitortua, baina nagusiki *Gero-n* erreferentziatu gabeak eta “ez-kutatuak”, orduan ohi bezala.

Azken hauen artean, Granadaren obra da guztietañ gehien nabarmenzen dena, etengabe errepikatua izan den legez. Pasarteen kidetasun garbiek, zenbaitetan itzulpen edo moldaketa zuzenek ez dute besterik pentsatzeko biderik uzten. Urkijo, esaterako, berehala ohartu zen *Gero* eta *Guía*-ren arteko antzaz.

Are gehiago, horrekin batera, Axularrenak Granadaren *Libro de la Oración y Meditación* eta *Memorial* izenekoekin zeuzkan beste kointzidentzia batzuk ere adierazi zituen Urkijok. Edozein modutan, ondorioa garbia ateratzen du Urkijok: “[...] coincidencias de este género podrían señalarse muchas en no pocos libros religiosos escritos en todas las lenguas” (Urkijo, 1912, 8).

Erakutsi den bezalaxe, Axularrek ez zuen bakarrik *Guía* delako hori<sup>18</sup> erabili, bestelakoak ere izan bide zituen aurrean bere obra burutzerakoan. Aukera guztien artean, ez litzateke bada harritzeko Axularrek Granadaren obrak erreferentzia orokor gisa izatea eta tartean, testua osatu behar zen guztietañ (edo horrela iruditzen zitzaionean), osagarri gisa bestelakoak erabiltzea.

Lafittek ere argi utzi zuen ezen “Axular possédaît les *OEuvres de Luis de Grenade. C'est indéniable*” (1943, 39), zenbait pasarteren erreferentzia ematen digularik. Ildo beretik ibilia zen Urkijo (1912) eta, beranduago, Villasante bera (1972) Granadaren zenbait pasarte identifikatu zutenean *Gero*-ko orrialdeetan.

<sup>18</sup> Granadaren *Guía de pecadores* liburuari buruz mintzatzean ezinbestekoa da Mitxelenaren ohar metodologikoa gogoan izatea: “[...] no parece haberse tenido en cuenta que no puede hablarse sin más del texto de la *Guía*, libro que tiene una historia un tanto agitada” (Mitxelena 1971, 166). Izan ere, aurrerago ikusiko den moduan, domingotarraren liburu-en edizio finkatuak ez bezalako bertsioen bat (Granadak berak egina edo bestek apailauta, alegia) ez ote zuen Axularrek erabili plantea daiteke zenbaitetan.

Egia da eraginak ez direla beti zuzenak izaten, badela azpian, edo egon daitekeela bederen, etengabe toki guztieta zabaltzen ari den itsaso edo *fondo komun* bat. Eta agian bide honetatik ulertu behar dira zenbait antz eta berdintasun. Ez dirudi bestelakoa denik Mitxelenak, Venegasen *Agonía del tránsito de la muerte* liburuan eta Axularrenea aurkitu sagarroiarenean irudi-kidetasuna zela eta, ohartarazi zuena<sup>19</sup>.

Bestalde, antz edota kidetasun horiek liburuaren egituratze mailan ere eman daitezke, eta eman ere ematen dira. Melchor Cano (1509-1560) ospe-tsuaren *Tratado de la victoria de sí mismo* (Toledo, 1551) liburu itzuli-moldatua dela eta, inork esan lezake Axularren idazlanaren egituraren eragina izan zuela, Axularren liburuaren zati handi batean Canoren aukibidearen oihartzuna nabari bailiteke<sup>20</sup>.

Horrezaz gain, urdazubiarraren liburuaren *auctoritas* arloa, geroago iku-siko den bezala, haren irakaspenei jarraikiz moldaturik agertzen zaigu, hots, Cano-ren *De locis theologicis* liburuan (1563) –eskolastikatik urrunduz– garbi azaltzen da argumento teologikoen sailkapena, hain zuen ere *Gero* -n erabili bezalakoa. Baino hori da dena. Gorago esan bezala, aszetikaren *fondo komun* horren adarrak baino ez lirateke.

Eta gauza bera esan beharko genuke hurbiltasun geografikoaren ildotik aztertutako obrei dagokienez. 1608an Antonio Alvaradok argitaratu zuen *Arte de bien vivir y guía de los caminos del Cielo* (“En el Insigne Colegio, y Universidad de nuestra Señora la Real de Hirache, por Mathias Mares, Impressor del Reyno de Navarra”) liburuak ere badu paralelismoren bat, garaiko edozein liburu aszetikok bezalaxe. Baino, bestelako loturak ez badu ere, lau liburuz osatutako obra aszetiko honetan badira zenbait pasarte Axularrenak bezalakoak direnak, besteak beste, haragiaren bekatuaren aukako erremedio lehenak eta nagusienak: lehenengoa orazioa eta bigarrena okasioei lekurik ez ematea.

Edonola ere, gogoratu baino ez aszetika liburu gehienak, neurri handi batean, erredundanteak direla planteamendu, gai, aipamen, exenplu, irudi, etab. askori dagokionez (bekatu buruzagiak, erremedioak, etab.)

3.- Granadaren liburu desberdinaren erabilera dela eta, adierazi beharko genuke Granadak berak bidaltzen duela irakurlea liburu batetik bestera. Izan ere, *Guía*-n bertan Granadak infernuaz diharduenean, beste libruetara bidaltzen du irakurlea honako hau esanez: “Y aunque desta materia tratamos en otros lugares, pero aquí la tratamos por otros medios diferentes [...]” (*Guía*, 41b), otros lugares horiek *Oración y Meditación* (ostiral gauekoak), *Memorial* (lehen parteak) eta *Vita Christi* (2. partetik bukaeraraino) direlarik<sup>21</sup>. Berdintsu egiten du obra onak, errebusina eta miserikordia tratatzean:

<sup>19</sup> “Sería temerario rechazar la hipótesis de una dependencia directa en el caso de una correspondencia tan precisa. El hecho mismo, no sé si real o legendario, podría proceder de una fuente común” (Mitxelena 1971, 166-167).

<sup>20</sup> Guziak dira “Del vicio de la lujuria [eta beste bekatu buruzagiak, banan-banan]” eta horrelako kapitulu bakotzaren gibelean “De los remedios contra la [...] [berriro bekatu buruzagiak, banan-banan]”.

<sup>21</sup> Granadarenetan oinarritzen dela dirudien arren, doktrinalki Axularrek Granadak egiten ez duen bereizketa bitxia egiten du infernuko penen atalean. Axularrek poena sensus delakoaren barnean hiru motatako penak bereiztuko ditu: arimarenak, arimaren potentzie-nak, gorutzarenak (ik. *Gero*, 579 or. eta hk.).

“Quien, demás de lo dicho, quisiere saber qué tan grande sea la virtud de la limosna u misericordia para con el prójimo, y cuántas las excelencias della, lea un tratado que desta materia hallará escripto al fin de nuestro libro de la *Oración y Meditación*” (*Guía*, 152b).

Hortaz, zinez pentsa daiteke *Guía* irakurtzen zuenak atal horietan sakontzeko irrika senti zezakeela eta hartara zuzenduko zituela bere pausuak, hots, liburuak eskuratzera eta erabiltzera, are gehiago predikari edo idazlea bazen.

Horren berrespena *Gero*-ren XVI. eta XVII. kapituluek agerian uzten duten iturritik letorke, hots, Granadaren *De la Oración y Consideración* (= *Oración y Meditación* izenekoa) liburuaren isladatik hain zuzen.

Ohartua zen Urkijo horretaz:

“Continuando el estudio de las fuentes del libro de Axular, encontré igualmente algunos puntos de contacto entre el *Guero* y otra obra del mismo sabio dominico [...]. Me refiero á su magistral *Libro de la Oración y Meditación*” (Urquijo 1912, 9).

Eta horrelako anitz antzematen da *Gero*-n. Ez da ahaztu behar, halaz ere, Granadakoaren liburu honek izan zuen hedapenak<sup>22</sup> beste liburu askoren “iturri” bihurtzeko bidea ireki ziola denbora laburrean, Axularren obra-rainoko ibilaldian bestelako “mediatizazioak” ahalbide zitzakeelarik.

Edozein gisaz, Grandakoaren presentzia eta “eragina” ez bide dira agortzen aipatu obra horietan. Oro har, Granadak obretan zehar isurtzen duen estilo zehatza dela medio -urdazubiarrok etengabe jaso zuena-, Granadaren erretorika sakratua egiteko modua ere isladaturik aurki daiteke neurri handi batean Axularrenean ere.

4.- *Guía* -ri gagozkiolarik, gogora dezagun lehenengo liburuaren lehen eta bigarren parteetatik azken honetako XVI. kapitulua bakarrik erabili zuela Axularrek berea burutzeko. Agian gaiaren izpiritualtasuna eta abstrakzioa gehiegizkoa edo zelako (Izpiritu Sainduaren grazia eta kontsolamenduak, barne bakea, argi sobrenaturala, bertutearen bosgarren pribilegioaz bakarrik baliatu zen, hots, “que es la alegría de la buena conciencia de que gozan los buenos, y del tormento y remordimiento interior que padescen los malos” (*Guía*... 62b)<sup>23</sup>.

Gehiago erabili bide zuen hirugarren partea eta zertxobait bigarren liburua.

Halaber, azpimarratzekoa da Axularrek egiten duen erabilpen ez-zehatza. Hau da, obraren 13, 14 eta 15. kapituluetan aski garbi ikusten da, estera-ko, Axularrek *Guía* erabili duena, baina ez bete-betean eta testuaren hariari

<sup>22</sup> Wardroppe-ek Whinnom-en datuetan (1980) oinarriturik dioen bezala, argitaraldien eta berauen ale kopuruen araberako arrakasta-zerrendetan “el *Libro de la oración* de fray Luis de Granada [...] deja muy atrás en las listas de *best-sellers* a *La Celestina*, la *Diana* de Montemayor, el *Quijote* e incluso a la *Guía de pecadores* del mismo fray Luis” (Wardroppe 1983, 25).

<sup>23</sup> Nabamentzekoa da apailatzearen oker bategatik *Biblioteca de Autores Españoles* izenekoaren barnean egindako edizio honetan sortutako ondozkapen arazoak, izan ere XVII. kapitulu bezala agertzen baita izatez XVI.a dena. Horren ondorioz, lehen parteak dauden gainerako kapitułu guztiak gaizki zenbaturik geratu dira.

jarraituz. Pentsa daiteke Axularrek beste taxutze modu bat erabili duela *Gero*-rako, hots, liburuan inspiraturiko eskema susmatzen da, baina “testu-amarauna” jatorri desberdinatako pasarteen osatua, askotan aipamenak eta Granadarenak baino zehatzagoak baitira.

Aurrekoa bezain argigarria izan daiteke XI. kapituluko 4. atalekoan. Aski garbi ikusten da bertan Axularrek berak asmatua eta garatua dela Granadaren jarraikako pasarte batzuk iturri gisa erabili ondoren eta ondorioz sortutako testuen artean (§3. eta §5. atalen artean alegia) kokatuz. Inspirazio iturri gisa erabilitako testua, Granadarena esan nahi baita, jarraian emanda dago.

Nolanahi ere, testuaren garapen mota hauetan batera “iturriekiko” etengabe antzematen diren ezaugarriak testuaren erraztasuna, egunerokotasuna eta pragmatikotasuna izango dira. Liburuaren xedeetatik urrun geratuko zaizkio Axularri abstrakzioak, zaitasun kontzeptualak eta izpiritualitate arloko faktoreak.

5.- Jokabide pragmatikoaren ildo horretatik, bai *Guía de pecadores-en* (136a) nola *Compendio y Explicación...* liburuan (130b or.) bada Axularrenean aurkitzen dugun pasarte luze baten paralelorik (*Gero*, 34-36 or.). Kidetasunaren ezaugarri gisa ideien gradazioa eta hitz eta kontzeptu zenbaiten berdintasuna izango genitzuke.

Granadaren liburu bietan “Remedios contra la pereza” izeneko kapitulu baten barruan daude biak tartekatuta. Alabaina, kidetasuna nabarmena bada ere, harrigarria izan daiteke kapitulu berdintsu horien lehenengo zatiaren aztarnarik ez agertzea Axularrenean, izan ere, alferkeriaren aukako erremedio gisa Kristo, apostolu eta aita sainduei buruz kontsideratzea aholkatzen denean. Ikusten denez, bakar-bakarrik “arrazoi naturalak” edo izan daitezkeenak hartzen dira aintzakotzat.

Edonola ere, Granadaren testu biak oso antzekoak diren arren, badirudi hurbilago dagoela Axularrenetik *C.y E.* liburukoa *Guía-ko* baino, hitz gakoek adierazten duten bezala:

“Considera tambien cómo ninguna de cuantas cosas Dios crió está ociosa; los ejércitos del cielo sin cesar cantan loores a Dios; *el sol*, y la luna, y las estrellas, y todos los cuerpos celestiales, cada dia dan una vuelta al mundo para nuestro servicio; las yerbas y *los árboles*, de poco van creciendo hasta su justa grandeza, y dan cada año sus flores y fructos; *las hormigas* trabajan y juntan granos en el verano, con que se sustentan en el invierno; *las abejas* hacen sus panales de miel, y con grande diligencia matan los zánganos negligentes y perezosos; y hallarás lo mismo en todos los géneros de animales. Pues ¿cómo no habrá tu vergüenza, hombre capaz de razón, de tener *pereza*, *la cual aborrecen todas las criaturas* irracionales, por solo instinto de naturaleza?” (*Granada, Compendio y Explicación*, 130b; gurea da letrakera etzana).

6.- Granadaren testuak erruz erabiltzen diren arren, zenbaitetan, dena den, zalantza bat aurkezten zaio irakurleari: Granadarenetik zuzenean hartu zituen Axularrek testu horiek ala beste iturri batetik, hau da, Granadak berak har zezakeen beste iturri batetik? Ezaguna da Granadaren eklektizismoa arlo honetan, bere *Retorica* ikustea nahiko izan baitaiteke horretaz ohartzeko.

Eta aipatu zalantza adibide konkretuetatik dator, zer esanik ez dago. Esate baterako, Axularrek 83-85 bitarteko orrialdeetan ematen dituen testuak eta Granadarenak berdin-berdinak badira ere, printzipioz kopia baino izan behar ez zuen tartekaturiko aipamen bat erabat desberdina da testu bietan. Granadak “De vitis Patrum, p. 2, § 36” erreferentzia ematen duen bitartean, Axularrek “In vita Arsenij apud Suri, tom 4 pag. 257.” eskaintzen du. Eta ez dira adibide bakarra, berdintsu gertatzen baita 298 orrialdean ere; Granadak Plutarkoren ezpainen jartzen duena Axularrek “Aurelius victor in vita Theod” delakotik hartua dela adierazten du. Eta antzera, baita ere, 437. orrialdean: Granadak Senekaren aipamena egiten du Axularrek Kintilianorena dela esaten duen esaldi berberarekin.

Beste honetan Granadak honela dio:

“También Hugo de Sant Víctor, en el segundo libro de los Sacramentos, [...] dice así: “[...] Porque fácil cosa es creer de sí el hombre que no quiere lo que no puede. Por donde la posibilidad declara muy bien la voluntad. Y por esto, si no haces penitencia cuando puedes, argumento es que no quieres” (*Guía*, 97a).

Eta Axularrek honela:

“Horretan emaiten duzu aditzera, eztuzula nehoiz ere penitenciariak egin nahi. Zeren osasunarekin zaudenean, ahala duzunean, ezpaituzu egiten.

Hala erraiten du doktor batek: *Si non facis dum potes, manifeste ostendis quod non vis* (Hugo. De Sacram. par. 4, cap. 5) [...]” (*Gero*, 202).

Aipamenen erreferentziak erabat desberdinak, ageri denez. Antzeko zerbaitek gertatzen da 208-209 orrialdeetan Axularrek ematen duen aipamen batekin. Honek san Agustinena dela dio eta erreferentzia ere eskainiko du (“Augustus de vera & falsa poenitenti, Hom. 41”). Granadak, ordea, san Agustinen egileta erabat ukatzen ez badu ere, zalantzauzten du eta, edonola ere, san Anbrosiorena bailitzen emango du erreferentzia: “Sant Ambrosio también en el libro de la penitencia (aunque otros atribuyen este dicho al mismo Sant Agustín) trata copiosamente esta materia[...].” (*Guía*, 96a).

Bestetan, testuinguru berberean bada ere, eta aipamenak berdin-berdinak izan arren, *auctoritas* desberdinak ekartzen dituzte Granadak eta Axularrek:

“Arrazoiñekin erraiten du San Agustinek: *Nullae poenae graviores quam malaे conscientiae, in qua cum non habetur Deus, consolatio non invenitur* (Aug. Sent. 191, Tom. 3). Ezta konzientzia gaixtoaren egitekoak eta penak baiño pena handiagorik” (*Gero*, 428-429).

“Sant Isidoro [...] dice [...]: Ninguna pena hay mayor que la de la mala conciencia” (*Guía*, 64a).

Berdin Axularrek aipamen bat San Agustinena dela dioenean (*Gero* 340 or.) eta Granadak San Bernardorena (*Guía*, 129b).

Beste batzuetan Granadak ez du inolako erreferentziarik eskaintzen, jatorrizko testuak berekotu egiten baititu:

“Guarda también tu lengua de cualquier palabra torpe; porque las buenas costumbres se corrompen con las pláticas malas. La lengua descubre las aficiones del hombre; porque cual se muestra la plática, tal se descubre el corazón; ca de lo que el corazón está lleno, habla la lengua” (*Guía*, 130b-131a).

Axularrek, aldiz, iturriak bereitztuz<sup>24</sup> ematen du Granadak dioen gauza bera:

“Zeren Iondone Paulok dioen bezala: *Corrumpunt bonos mores, colloquia mala* (1 Cor. 15). Solhas gaixtoek galtzen dituzte aztura onak. Eta erraiten dute filosofoek ere: *Voces sunt signa conceptuum*. Mihiak deklaratzen du zer dadukan bat bederak bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barrenean. Zer baitaduka gogoan, hora alpha nahi du iendartean, mihia da bihotzaren mandataria, mihian da ezagun nor den bat bedera, eta bai nongo den ere. Iondone Petri ezagutu zen bezala” (*Gero*, 396).

Inoiz gertatzen da Axularrek latinezko aipamen bakarra ematen duela Granadak bi erreferentzia egiten dituen tokian, baina urdazubiarraren ber-tsio bakar horren itzulpenak argi erakusten du begien aurrean izan dituela haren (edo beste baten?) biak, itzulitakoak ez baitu zerikusirik latinezkoarekin eta bai aipatzen ez denarekin:

“Ihardesten du errege Davitek: *Sacrificate sacrificium iustitiae & sperate in Domino*. Erran nahi du: Egizue ongi, ahalez obra onetan enplega zaitezte, eta gero orduan euzue Jauna baithan esperantza” (*Gero*, 149).

“Espera en el Señor, dice David, y haz buenas obras. Y en otro lugar: *sacrificad*, dice él, *sacrificio de justicia, y esperad en el Señor*. Esta es buena manera de esperar[...].” (*Guía*, 105a).

Azken adibide argigarri bat 94-95 orrialdeetakoia izan daiteke. Bertan Axularrek ematen duen testua Granadarenaren parekoa da. Halere azken honek adierazten duena urdazubiarrak ezin egokiago datorren aipamen agustindar batekin uztartzen du; are gehiago, esan genezake Granadaren testuan azpian, aipatu gabe bada ere (hirugarren pertsona erabiltzen du: “se dice”), Axularrek espreski dakarren aipamena dagoela. Konpara bitez bestela Granadarena eta urdazubiarrarena, hots,

Granadak:

“[...] por lo cual se dice que duerme con él en la sepultura. Y la causa desto es porque por razón de la vieja costumbre, que está ya convertida en naturaleza, tienen los apetitos de los vicios tan íntimamente arraigados en los huesos y médulas de su ánima, como

<sup>24</sup> Juan Luis Vives-ek zehatzago eskainiko du iturria: “Menandro lo manifiesta con una expresión que el apóstol San Pablo consagró con su boca: *Corrompen las buenas costumbres los malos coloquios ...*” (“*De las disciplinas*”, *Obras completas*, II, Madrid, Aguilar-Generalitat Valenciana, 1992, 400 or.)

una calentura lenta de tísicos, que está allá metida en las entrañas del hombre, que no espera cura ni medicina” (*Guía*, 93b).

Axularrek:

“Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat, zein egiten baita, sukharra denbora luzeaz, eta aphur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuilluz edo baizen, eta izaitekotz ere xoil luzaro: hala da denbora luzeaz, gogoan, eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da hetika gaixto sarthua, atheratzen eta erremediatzen gaitza. Eta halako-agatik erraiten du San Augustinek thonban barrena sarthua, eta ehortzia dagoela: eta gaiñeko harri-estalkia, iaikitera eta hats hartze-ra, utzten eztuena, usantza gaixtoa dela. *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua premitur anima, nec respirare, nec resurgere permittitur.* (Aug. Serm. 44 de verbis Domini tom. 10)” (*Gero*, 94-95).

7.- Baino sarri askotan aipamenetan Axularrek erreferentzia mota desberdinak eta aberatsagoak eskaintzen dituela diogunean, ez gara *Guía, Memorial* eta horrelakoak bezalako erreferentzia zuzeneko liburuez bakarrik ari. Soil-soilik Granadaren erreferentziak erabili zituela baiezta lezakeen hipotesia aldez aurretik aldentzeko, esan dezagun bestelako liburueta ere Granadaren datuak normalean urriagoak direla Axularrek ematen dituenak baino. Adibide batek argitu dezake egoera Granadak burutu *Sylva locorum* eta *Collectanea* direlakoei berei begiratuz gero<sup>25</sup>. Honek “[...] otiositas, mater nugarum, nouerca virtutum” delakoaren erreferentzia gisa “Bernar. de considerat.” ematen duen bitartean (*Sylva*, 355 or.). Axularrek “cap. 11” eransten du. Eta horrela gertatzen ere da Granadaren *Sylva* edota *Collectanea* izeneko- etan eta *Gero-n* agertzen diren aipamen askotan.

Badirudi Axularrek erreferentzia gisa bestelako testurik (ere?) erabili zuela, eta ez bakarrik aipamenak bilatzeko edo osatzeko.

8.- Bestelako testuen erabilpena Axularrek egindako aitorpenean (“... liburu debozinozkoetarik ... bildua”) argi geratzen den arren, horren berrespe-na beste paralelismo batzuen bitarte erdietsiko da.

Huarte de San Juanek, esaterako, *Examen de ingenios para las ciencias* (Baeza, 1575) liburuaren lehen argitalpenean (eta azpimarratu nahi genuke lehen bertsioaren datu hau<sup>26</sup>) badu pasarte bat Axularrek idatzitako beste testu batekin kidetasunik duena. Egia esan, Bibliatik jasotako pasarte batean (Esaera Zaharrak 6, 6-8) oinarritzen dira biak. Halere badute kidetasunik gutxienez pare bat puntutan.

<sup>25</sup> Berdin esan genezake *Collectanea moralis philosophiae* (Olisipone, 1571) delakoari dagokionez (ezaguna denez, beste izenburu batekin agertuko zen handik urte batzuetara: *Loci communes philosophiae moralis*, Kolonia, 1604).

<sup>26</sup> Bertsio hori oinarritzat burutu zen 1578an Iruñean beste argitalpen garrantzitsu bat “de la que surgen las restantes castellanas, entre ellas seis aparecidas en los Países Bajos tras el expurgo (que estas últimas no tienen en cuenta)” (Fresco Otero 1991, 33).

Honela da Donibane-Garaziko Huarterena:

“Y si Galeno considerara las sendas y caminos de la hormiga y contemplara su prudencia, su misericordia, su justicia y gobernan-  
ción, se le acabara el juicio, viendo un animal tan pequeño con tanta  
sabiduría sin tener preceptor ni maestro que le enseñase. *Vade ad for-  
micam, o piger, et considera vias eius, et disce sapientiam; quae, cum  
non habeat ducem neque praceptor, preparat in aestate cibum sibi  
et congregat in messe quod comedat. Proverb., cap. VI.*” (Examen..., 89).

Axularrek, aldiz, honela dio:

“Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailluaz, ethorki-  
zuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen  
mantenuaz, nork zer erranen du? Nork eztu miretsiko, eta gogoeta  
eginen? Spiritu Sainduak berak igortzen gaitu animalia ttipitto  
hunengana, zer egin behar dugun ikhastera, erraiten duela: *Vade ad  
formicam, o piger, et considera vias ejus, et disce sapientiam quae, cum  
non habeat ducem nec praceptor, parat in aestate cibum sibi* (Prov.  
6). Zoaz, nagia, xinhaurriagana, eta konsidera itzatzu haren bideak  
eta bidexkak, ioan-ethorriak eta itzulinguruak, nekeak eta trabai-  
lluak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta  
bethiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk ga-  
be, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar  
duen mantenua, bazka eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurre-  
an barrena, berak eginikako ganbaretan, eta bihi-tegietan. Eta hain  
da zuhur eta goithatu, ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bildue-  
tara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik has-  
ten baitzaika bihari: zeren bertzela sor liteke bihi hura, buztan lite-  
ke, belhar bihur liteke: eta gero handik harat, alfer-lan gertha leki-  
dikao bere leheneko zuhurtzia guztia” (Gero, 36).

Bien arteko kidetasuna animalia txikiaren bizimodutik ateratzen den  
ondorioan letzake lehendabizi, hots, pertsonei dagozkien ahalmenak egozten  
zaizkio inurriari. Huartek “su prudencia, su misericordia, su justicia y gober-  
nación” aitortzen dizkion bitartean, Axularrek “xinhaurriaren gobernuaz,  
zuhurtziaz, trabailluaz” hitzegingo digu, haren izaera “zuhur eta goithatu”-z.

Baina paralelotasun honen garrantzia areagotu egingo litzateke isuritako  
kontzeptuen balioaz ohartuz gero. Hain zuzen ere, Inkisizioak Huarteren li-  
burua aztertu zuenean “su prudencia, su misericordia, su justicia” ezabatzeko  
agindu zion, eta horrela arindurik atera zen handik aurrera, 1594garrenaz ge-  
roztik, alegia.

Axularrenak ez du horrelakorik.

Horrezaz gain, bada paralelotasuna formalki nabamentzen duen ele-  
mentu bat. Bai Huartek eta bai Axularrek egiten duten itzulpen-moldake-  
tan, bietan latinezko “considera vias eius” esamolde berdinarekin itzultzen  
da: Huartek “considerara las sendas y caminos” eta Axularrek “konsidera  
itzatzu haren bideak eta bidexkak”, bietan sinonimo-bikotea erabiliz.

Gehiegi litzateke kasu honetan kointzidentzia hutsaz mintzatzea. Ha-  
laz ere, honek guztiak ez luke Huarte eta Axularren arteko menpekotasun

zuzenik ere adieraziko ziurrenik, honelako pasarte bakar baten kidetasunak ez baitu ezer erakusten. Berriro ere, agian beraiek erabilitako iturri komun batera eramango gintuzke hipotesiak.

9.- Esan bezala, kapitulu eta pasarte zehatzei buruzko erabilpenak hainbat oharkizunen beharra daukate, izan ere Granadaren presentzia nabarmena den arren, zenbaitetan tarteko obraren baten / batzuen beharra baitago arazoak egokiro esplikatu ahal izateko.

Ildo honetatik esanguratsua izan liteke Urkijok behiala planteatu zuen galdera oraingoz erantzungabetik ondorioztatu beharko litzatekeena. *Guía de Pecadores* liburuan izandako erredakzio desberdinak zirela medio, honela galdetzen zuen: “¿Cuál de las dos *Guías de Pecadores* utilizaría Axular?” (1912, 9).

Testuen arteko erkaketaren arabera, badirudi lehena ez zuela erabili, bertan zeuden hainbat pasarte ez baitzuen handik jaso. Horren adibide nabarmena da *Gero-n* 95-96 orrialdeetako pasartea Granadaren bigarren *Guía*-ren parekoa dena, eta lehen *Guía*-rekin (cf. Granadaren *Guía* horren edizioa: 1953, 76 or.) inolako zerikusirik ez duena.

Beste adibide bat urdazubiarraren 600. orrian ikusten dena genuke. *Guía*-ren lehenengo erredakzioak (1556) honela dakar pasarte hori: “Nada desto ha lugar que se diga, *pues clama en su Evangelio aquella eterna Verdad [...]*” (1556: 1953, 55; letrakera etzana gurea da).

Aurrekoaren kidea den testuan honela dio Axularrek: “*Fedeak* erraiten deraku [...]” (*Gero*, 600; gurea da letrakera etzana).

Granadak bazuen testuinguru berean “fede” hitza erabiltzen zuen beste testu bat, guk behin-betiko *Guía* delakoan ez, baina *Memorial* liburuan aurkitu duguna: “*pues de todo esto nos desengaña la fe*” (*Memorial* 207; gurea da letrakera etzana).

Beraz, lehenengo *Guía*-ren zuzenketa egina zegoen Axularrek erabilitako iturri aszetikoan. Horrezaz gainera, badirudi pasarte zenbait Granadak *Memorial*-era karriatuak zituela. Halere, dagokigun arazoa zaitzeko baina irtenbideari argi gehiago emateko, erantsi behar da lehenengo *Guía*-n agertzen den pasarte bat eta *Memorial*- era eramana izan ez zena Axularrenean agertzen dela, Isaias profetaren hitzak jasotzen eta moldatzen dituena hain zuzen:

“¿Qué corazón no se despedazará con la continuación de este tormento? ¿Quién de vosotros, dice Dios por su profeta, podrá morar con aquel fuego tragador, y hacer vida con aquellos ardores eternos?” (1556: 1953, 55).

Axularrek:

“Arrazoinekin galdegiten du Isaias Profetak: *Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis?* (Isai. 33). Halako lekhuan, hain su beroan, gar eternalean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du?” (*Gero*, 599).

Honenbestez, pentsa daiteke ez dela erabat zuzena Urkijok susmatu zuen harako hora: “Si no me engaño, ésta última es la *Guía* que manejó el párroco de Sara” (1912, 9), izan ere, ez bigarren *Guía* liburuak ez eta *Memorial* delakoak ere ez baitirudite pasarte horien guraso.

Hortaz, galdera orain beste hau litzateke: lehenengo *Guía*-ren eta *Memorial*-aren artean ba ote zuen Granadak bestelako ediziorik prestatu?<sup>27</sup>. Testuak latinez eskaintzen zituen ediziorik bai? Axularren aipamenetara egokitzen den testua (+ latinezko bertsioa), alegia?

Edonola ere, arazoak argitu bitartean, bestelako hipotesirik ere plantea liteke nonbait, hau da, Axularren “iturria” Granadaren obrak erabili zituen autoreren bat izan daitekeen galdetu beharko litzateke elementu guztiak ego-kiro kalibratu ahal izateko. Honek, jakina, ez luke derrigorrez adieraziko hitzez-hitzezko itzulpen-moldaketa bat izan zenik Axularrena<sup>28</sup>; esan nahi dena honako hau da soil-soilik: beste liburu batzuk bezala, Granadaren obra ere zeharka ezagutu zezakeela urdazubiarrak, eta ez zuzenean. Eta Granadaren obren arrakasta, hedapena eta erabilera eskerga ikusirik, ez dirudi *a priori* alboratzeko hipotesia litzatekeenik.

10.- Nolanahi ere den, ezin da metodologikoki baztertu iturri antzeko gehiago ere aurki daitekeela *Gero-n*, besteak beste, liburuan bertan aipatzen direnak:

“Otras (kointzidentziak) podrán también hallarse, a poco que se rebusque en las literaturas vecinas del siglo XVI, con toda probabilidad, a menos que me equivoque mucho, más bien del lado español que del francés. Las misma fuentes confesadas, cuya lista estableció Angel Irigaray (aunque creo que no está del todo completa) en la edición del *Guero* de 1954, preparada por don Manuel de Lecuona, no han sido consideradas en detalle” (Mitxelena 1971, 168).

Horietako batzuez baliatuz, erraz konproba daiteke Axularrek liburuan barrena gehiago zor diela aszetikako testu klasikoei orain arte aitortu izan de-na baino. Eta berriro diogu zorrak ez direla ezinbestean zuzenak izan behar, zeharkakoak ere izan baitaitezke, hots, eremu bereko literaturaren bidez iritsiak.

Adibide argigarria aukitzen dugu San Agustinen aipamen aitortu batzuk aztertuz gero.

Axularrek haren *De Vita Christiana* liburutik hartutako aipamen biak kapitulo berekoak dira (IV. kap.) eta ia jarraian doazenak, ikusiko den beza-la. *Gero-n* 112 eta 125 orrialdeetako testuek honako trantsiziozko pasarte hau dute haien artean:

“[...] Et quod unusquisque vel celerius vel tardius, prout peccatorum suorum modum expleverit, judicetur, evidentissime demonstratur, quando de Sodomorum et Gomorrhaeorum interitu atque incendio, qui sua jam peccata repleverant, ad Abraham Deus

<sup>27</sup> Ez zuen horrelakorik susmatu Urkijok ondoko lerro hauek idaztean: “A no ser que se demuestre que los párrafos copiados del *Memorial* están, á su vez tomados de otra obra anterior, resulta evidente que Axular imitó á Granada” (Urquijo 1912, 14). Horren arabera, Granada ez den beste “iturri” bat tartekatuko bailuke hipotesi gisa.

<sup>28</sup> Hori baino ez bide zen Farinelliren hipotesi kontrastatu gabekoa.

loquitur, dicens: *Clamor Sodomorum et Gomorrhæorum repletus est, et peccata eorum magna vehementer repleta sunt* (*Gen XVIII, 20*). De Amorrhaeis vero quid dicit, qui sua nondum peccata finierant, quos post multos annos quam supra dictæ civitates crematae sunt, constat esse deletos? *Nondum repleta sunt peccata Amorrhaeorum usque adhuc* (*Id xv, 16*) *Quo exemplo...*" (ik. San Agustinen *De Vita Christiana*, in Migne, *Patrologia*, XL. tom., 1035-1036 zut.).

Nabarmena denez, trantsizozkoa deitu dugun pasarte horrek *Gero*-ko 124-125 orrialdeetan du islada<sup>29</sup>:

“Prometatu zerauen gure Iaungoikoak Abrahani eta haren ondokoei, emanen zerauela Iudeako erresuma on hura. Ordea etzerauen, prometatu eta berehala eman. Eta zergatik ez? Ihardesten du Iainkoak berak: *Necdum enim completæ sunt iniquitates Amorrhaeorum* (*Gen. 15*). Ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraño bethe eta konplitu Amorreoen bekhatuak, zeinek baitadukate herri hura. Hek neurria betha dezatenean, eta kontua konpli, orduan edekiko derauet hei, eta emanen Abrahani eta haren ondokoei.

Etzuen iduriz hala egin Sodomakoekin eta Gomorrakoekin: hek erran eta berehala, gehiago iguriki gabe, zerutik su bat igorirrik erre zituen. Zeren ia ordukotzat neurria bethe baitzuten. Eta hunen gaiñean erraiten du San Agustinek: *Quo exemplo...*" (124-125 or.).

Bada bestelakorik ere, eta nahiz eta bakarrik aipamenaren erreferentzia eman, Axularrek ia hitzez-hitz ematen duena gainera:

“[...] cogitantes quod quamdiu David exercitavit se in militia, non insultabit sibi luxuria; sed postquam in domo otiosus remansit, lavorabit adulterio, et homicidium commisit. Samson dum cum Philistaeis pugnavit, non potuit capi ab hostibus; sed postquam dormivit in sinu feminae, et otiose cum ea remansit, mox capitur, et caecatur ab hostibus. Salomon dum occupatus esset in aedificatione templi, non sensit luxuriam; sed recedens ab opere, mox persensit insultum luxuaiae, et deficiens, femina instigante ad idola, adoravit in thalamo virtulum aureum. Vigilate ergo, fratres mei, vigilate, et nolite deficere; uia nec sanctiores Davide nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salomone vos esse cognovi” (San Agustin, *Ad fratres in Eremo*, 17. sermoia; in Migne, XL. tom. 1262 zut.).

Axularrek honela ematen du pasartea:

“Errege Davitek, trabaillatzen zenean, gerlan bere presunaz zebillanean, kontu guti egiten zuen emaztèz. Baiña astiari, eta aisiari iarririk, mandatariz eta bere ordaiñez egitekoen egiten hasi zenean,

<sup>29</sup> Adierazi bezala, honako hau ere ez da Axularrek San Agustini derrigorrez zuzenean hartutako testua izan behar.

atzeman zen berehala, eta erori bertzeren emaztearekin. Salomon ere tenploaren egiten hari zen bitartean, eztugu edireiten enganatu zutela emaztēk, baiña tenploa akhabaturik, alferkeriari eman zeikanean, fite atrapatu zen.

Bada Sanson ere gerlan zebillaiño, ezin egundaiño garaitu zuten bere etsaiek, baiña egitekoak eta gerlak utzirik, emazte baten altoan bere plazerera etzan zenean, emazte hark berak enganatu zuen, eta gero etsaiek hartzaz nahi zutena egin zuten.

*Vigilate ergo, fratres mei, quia nec sanctiores Davide nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salomone vos esse video* (August. ad fratres in eremo. Sermo 17. T. 10). Zaudete beraz iratzaririk, ene anaia maiteak (dio San Agustinek), zeren eztakusat nik, zaretela zuek, David baiño sainduago, Sanson baiño balentago, eta ez Salomon baiño iakinsunago” (Gero, 380-381).

Horrelakoetan, badirudi beste testu mota batzuk erabili izan zituela urdazubiarrak berea burutzeko eta, daitekeena da hark ezer ez jakitea aipamenaz gainera zegoenaren jatorriaz. Ildo horretatik, erraz aurki daitezke antzeko aipamen sortak dituzten aszetika liburuak, baita Axularrez geroztikakoetan ere.

## BIBLIOGRAFIA KLASIKOA

- ALVARADO, Antonio, *Arte de bien vivir y guía de los caminos del Cielo*, Mathias Mares, Hirache (sic), 1608.
- AXULAR, *Guero*, Bordele, 1643 (faksimila: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988)
- CANO, Melchor, *Tratado de la victoria de sí mismo*, Toledo, 1551.
- GRANADA, Luis de: *Guía de Pecadores*, Lisboa, Joannes Blavio de Colonia, 1556 (lehen edizio hau orain: Madrid, Espasa-Calpe, 1953; edizioa, hitzaurrea eta oharrak: Matías Martínez Burgos)
- Guía de Pecadores*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, I, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VI), 1944, 1-470 or.
- De la Oración y Consideración*, (*De la Oración y Meditación* liburua, hain zuzen) in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, II, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VIII), 1945, 1-202 or.
- Memorial de la Vida Cristiana*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, II, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VIII), 1945, 203-411 or.
- Compendio y Explicación de la Doctrina Cristiana*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE XI), 1945, 58-177 or.
- Collectanea Moralis Philosophiae*, in tres tomos distributa: *quorum primus selectissimas sententias ex omnibus Senecae operibus. Secundus ex moralibus opusculis Plutarchi. Tertius clarissimorum principum & philosophorum insigniora apophthegmata ... complectitur..* Olisipponē, 1571.
- Retórica Eclesiástica o de la manera de predicar*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE XI), 1945, 488-642 or.
- HUARTE DE SAN JUAN, J., *Examen de ingenios para las ciencias*, 1575 [orain: F. Fresco Otero (ed.), Madrid, Espasa-Calpe, 1991].
- Index librorum prohibitorum et expurgatorum(...)* Madriti, apud Ludovicum Sanchez typographum Regium, 1612.
- LEIZARRAGA, I., *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria...*, Rochella, 1571 (orain: Bilbo, Euskaltzaindia, 1990).
- MATERRE, E., *Doctrina Christiana*, Bordele, Jaques Millanges, 1623.
- Patrología Latina*, Migne-ren edizioa CD-Rom formatoan, CETEDOC, 1994.
- VIVES, Luis, *De las disciplinas* (orain: *Obras completas*, II, Madrid, Aguilar-Generalitat Valenciana, 1992)

## BIBLIOGRAFIA ÓROKORRA

- FARINELLI, A., 1908, *Dante e la Francia. Dall'età media al secolo di Voltaire*, 2. lib., Milano, Ulrico Hoepli.
- FRESCO OTERO, F., 1991, "Introducción" in Huarte de San Juan: *Examen de ingenios para las ciencias*, Madrid, Espasa-Calpe (F. Fresco Otero ed.), 9-41.
- GARCIA DEL MORAL, A.- Román de la Rosa, A., 1993, "Fray Luis de Granada, autor europeo", in A.A.: *Fray Luis de Granada. Su obra y su tiempo*, II, Universidad de Granada, 247-284.
- LACOMBE, G., 1943, "Varia sur Axular et son livre", in A.A.: *Axular 1643-1943 (Troisième Centenaire du Guero)*, 19-2; eta *Gure Herria*, 1956, XXVIII-6, 365-370.
- LAFITTE, P., 1943, "Les citations d'Axular", in A.A.: *Axular 1643-1943 (Troisième Centenaire du Guero)*, 38-39.
- MITXELENA, K., 1971, "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", *FLV 3*, 149-169.
- SALABERRI, P., 1997, *Axularren prosa Erretorikaren argitan*, Bilbo, EHUKO Argitalpen Zerbitzua.
- URGELL, B., 1991, "Axular eta Larramendi", *ASJU XXV-3*, 901-928.
- URQUIJO, Julio de, 1912, *Una fuente del Guero (Axular imitador de Fr. Luis de Granada)*, 12 orrialdetako, Saint Jean de Luz, J. Dargains.
- VILLASANTE, Luis, 1952, "Literatur-euskara Laphurtarr Klassikoaren gain eratua", *BAP*, 91-119 eta 259-298.  
1972, *Axular: Mendaia, Gizona, Liburua*, Ofiati, Ed. Franciscana Aranzazu.
- WARDROPPER, B. W., 1983, "Temas y problemas del Barroco español", in Wardropper eta beste 1983, *Siglos de Oro: Barroco*, Barcelona, Ed. Crítica (ik. F. Rico 1983, III. tomoa), 5-84.

## LABURPENA

Axularren obraren taxuketa bideratu zuten faktore desberdinak (xedea, erabili metodologia, tratamendu erretorikoa...) gogoan harturik, *Gero-n* atzmanen uste izan diren iturriei buruzko hausnarketari ekitea proposatzen du artikulu honek.

Ildo horretarik, eta aurkitu diren testu-menpekotasunak abiapuntu, agerian utziko da usteazko "iturriak" bi multzotan bereizteko premia, hots, "Eskaintza-ri" eta "Irakurtzaileari" dagozkionak batean, eta liburuaren *corpus*-ari dagozkionak, bestean. Lehenengoak euskal tradizio idatzizaren eremukoak diren bitartean, bigarrenekoek latinez eta, batik bat, gazteleraaz idatzitako aszertika obren esparrukoak dirudite. Ildo horretatik, azken hauen artean Axularren obraren iturri nagusi gisa Granadarenak antzematen badira ere, zeharo argitu gabe geratzen da amankomunean izan bide zituzten iturrien arazoa eta urdazubiarrak Granadakoaren obrara iristeko bidea zuen ala bitarteko obren bidez burutu ote zuen planteiatzen duen hipotesia. Guziarekin ere, obra aszeti-koen izaera erredundanteak (planteamenduan, gaitean, aipamenetan, irudie-ten, etab.) irekita uzten du jatorrizkoen segimendurako gonbitea.

## RESUMEN

Las siguientes líneas proponen una reflexión sobre el problema de las fuentes de las que parece deudora la obra *Gero* de Axular.

Sin obviar los diversos aspectos que convergen en la configuración de la obra del escritor navarro, se constata una doble y significativa vertiente en el ámbito de las fuentes. Mientras que las correspondientes a "Gomendiozko karta" e "Irakurtzaileari" parecen provenir de la breve tradición escrita vasca, las del *corpus* de la obra muestran similitudes importantes con otras del área de la literatura ascética latina y castellana. En este sentido, y aun cuando la semejan-

za entre amplios fragmentos de la obra Axular y la de Luis de Granada es tan evidente que no parece dejar duda de la relación de dependencia textual entre ambas, quedaría aún por dilucidar definitivamente el problema de hipotéticas fuentes comunes e, incluso, el de la existencia de obras que eventualmente pudieran haber actuado de engarce entre los textos citados. El mismo carácter redundante de las obras ascéticas y la no excesiva diferencia que se percibe entre ellas en lo que respecta a planteamiento, temas, citas, etc., hace que la invitación a seguir investigando se mantenga abierta.

### RÉSUMÉ

Les lignes suivantes proposent une réflexion sur le problème des sources dont l'œuvre *Gero* d'Axular s'est inspirée.

Sans pallier les différents aspects qui convergent dans l'œuvre de l'écrivant navarrais, on constate une double et significative orientation en ce qui concerne les sources. Tandis que les correspondantes à "Gomendiozko Karta" et "Irakurtzaileari", semblent-elles provenir de la brève tradition écrite basque, celles du *corpus* de l'œuvre ont des similitudes importantes avec d'autres du domaine de la littérature latine et castillane. Dans ce sens, et même si la ressemblance de larges passages de l'œuvre d'Axular et la de Luis de Granada est si évidente qu'on ne peut pas douter de la relation de dépendance textuelle entre les deux, il reste à résoudre définitivement la question des éventuelles sources communes et, même, celle de l'existence des œuvres qui éventuellement pourraient avoir joué le rôle d'enchaînement entre les textes mentionnés. Le même caractère redondant des œuvres ascétiques et la petite différence entre elles quant à la mise en œuvre, les thèmes, les citations, etc., fait que l'invitation à continuer l'étude soit toujours ouverte.

### ABSTRACT

The following lines propose a degree of reflection as concerns the issue of sources on which Axular's *Gero* was most probably based.

Without forgetting the wide range of conditions that come together in the configuration of the Navarran author's work, a significant double tendency can be identified in the area of its sources. Whilst those for "Gomendiozko karta" and "Irakurtzaileari" would seem to stem from the brief written tradition in Basque, those for the *corpus* of the work reveal certain similarities to other works from Latin and Castilian ascetic literature. In this way, and even when the similarity between large fragments from Axular's and Luis de Granada's work is so obvious as to leave little room for doubt with regard the relationship of textual dependency between the two, the problem of hypothetical common sources and even that of the existence of works that might have fortuitously acted as bridge between the cited texts still remain to be definitely determined. The repetitive nature of the ascetic works and the scarce variations that can be recognized between them in terms of approach, topics, quotations, etc. keep the invitation to continue investigating this subject more than open.

